

**MATXIN IRABOLA,
SORBONAN SARRI AIPATUTAKO BERTSOLARIA:
TAPELDUNORDEA 1935EDKO TXAPELKETA NAGUSIAN**

*Matxin Irabola, Sorbonan sarri aipatutako bertsolaria:
txapeldunordea 1935eko Txapelketa Nagusian*

*Matxin Irabola, Sorbonan sarri aipatutako bertsolaria:
txapeldunordea 1935eko Txapelketa Nagusian*

1. Hiru txapeldunorde Iparraldeko

Irakurleak dakienez, duela hirurogeita hamabost urte jokatu zen Lehenengo Bertsolari Txapelketa Nagusia. 1935eko urtarrilaren 20an, hogeitabertsolari lehiatu ziren Donostiako Kursaal zaharreko Poxpolin aretoan, eta harrezkero hamabost txapel jokatu dira. Oraintsurengoan, iazkoan (2009-12-13), Barakaldo-ko BCEn, hamalau mila bertsozaleren aurrean, Maialen Lujanbio hernaniar gazteak jantzi zuen txapela. Final horretako azken saioan, buruz burukoan, beste gazte bat izan zuen aurrean hernaniarrak: Amets Arzalluz lapurtarra, txapeldunorde gelditu zena. Txapela lortu ez arren, esan dezakegu bigarren postu hori lorpen handi ere handia izan zela Iparraldeko bertsogintzako partaide guztientzat; txalogarria eta eredugarria, kontuan hartzen badugu, orain urte batzuk nola zegoen Iparraldeko bertsolaritza. Ondo egindako lanaren saritzat har daiteke, zalantza barik, bigarren postu hori, berandu baino lehen lehenengo bihur daitekeena.

Edozelan ere, Amets gazteak lorturiko ohorezko postu hori ezaguna zen lehendik Iparraldeko bertsolarientzat. Izan ere, 1967. urteko txapelketan Xalbador handiak, txistualdi historiko hura entzun eta gero, kemena izan zuen Uztapiderekin lehiatzeko azken saio erabakigarrian, ezin izan zuen irabazi baina. 1935eko txapelketara jotzen badugu, beste txapeldunorde ipartar bat dugula ikusiko dugu: Martin Irabola Goya *Matxin* senpertarra, txapelketa historiko horretan Basarriren hurrengo gelditu zena. Hiru dira, beraz, bigarren postu hori lortu duten ipartar bertsolariak: 1935ean *Matxin* (Senpere, Lapurdi) 1967an, Xalbador (Urepel, Nafarroa Beherea), eta 2009an Amets Arzalluz (Hendaia, Lapurdi).

Xalbador eta Amets Arzalluz gaztea ezagunak dira oso; *Matxin*, ordea, ezezagun samarra dugu, nahiz eta 1935eko urtarrilaren 20an Poxpolin antzokian saio azpimarragarri bat egin. Izan ere, Lehenengo Bertsolari Txapelketa Nagusiaren inguruko kroniketan, Basarri txapeldun gaztea eta Txirrita zaharra izan ziren aipatuena. Joseba Zubimendik idatzitako kronika kanonikoan¹ ere, jasotzen diren bertsoetatik bi baino ez dira *Matxin* txapeldunordearenak². Txapelketaz, aurreko *Karmel* baten jardun genuenez³, oraingo honetan *Matxin* bertsolari jatorrari eskaini nahiko genioke gure gorazarrea. Izan ere, txapelketa nagusiak platinozko ezteiak ospatzen dituen honetan, 75 urte betetzen dira senperrak utzi gintuela, txapelketan parte hartu, eta handik gutxira hil baitzen, 1935eko apirilaren 9an, hain zuzen ere.

¹ Zubimendi, Joseba: *Bertsolari-Guduak 1935-1936*, Euskaltzaleak, Donostia, 1936. Bigarren edizio faksimilea: Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1985.

² Liburuan, guztira, 1935eko txapelketako 45 bertso jasotzen dira. Hona hemen, bertsolariak eta bakoitzaren bertso kopurua: Basarri, txapelduna (9), Txapel (6), Kortatxo (6), Zepai, hirugarren sailkatua (5), Txirrita (4), Alkain, laugarren sailkatua (3), *Matxin*, txapeldunordea (2), Sarasola *Lexo* (2), zortzi bertsolari (1). Lau bertsolarik ez daukate bertsorik Joseba Zubimendik aukeaturiko sortan.

³ Sarriugarte, Iñaki: "Bertsolari Txapelketa Nagusiak 75 urte: P. Abarrategi eta E. Uriarte Poxpolin antzokian", *Karmel*, 270, 2010-2, 3-41.

2. Argazki horixka bat *Literatura oral vasca* liburuan

Badago gurean liburu bat esku artean sarri ere sarri erabili izan dudana. Orriak horixka koloreko bihurtu diren arren, liburuak mantendu egiten du bere funtsa; ez da modaz pasatu, argitaratu zenetik hainbat urte pasatu dira baina. Liburu Manuel Lekuonaren *Literatura oral vasca* da, eta gurean dagoena Auñamendik 1965. urtean argitaratutako edizioko aleetariko bat da. Liburuak azalean argazki zahar itxurako bat dauka, eta bertan mahaikada eder bat ikusten da zelai baten. Mahaiaren gainean, botilak edalontziak-eta ikusten dira. Mahaiaren bueltan gizonezkoak dira nagusi, txapeldunak gehienak. Txaloka ari dira. Txaloka nori? Mahaiaren albo banatan zutunik dauden bertsolari biri. Bertsolariok dotore jantzita, kantuz ari dira: eskuinekoa txikiagoa da, argalagoa ere bai, eta zaharrago ematen du. Liburuan bertan argibiderik ez dagoenez, ezin jakin nortzuk diren bertsolariok. Hala ere, esan daiteke nire baitan ezin hautsizko lotura bat egon dela beti argazkiaren eta Lekuonaren liburuaren artean.



Ganix Halsouet eta Matxin Irabola bertsoetan.

Urteak joan, urteak etorri, Matxinen inguruko informazioa bi-lutzen ari nintzela, hara non aurkitzen dudana *Ttípi-ttapa* nafar aldizkarian argazki bera. Argazkia txertatuta agertzen da Senpetetik bidalitako kronika baten, eta oinean Franck Dolosor kaze-

tariak agertu asmo zuen liburu baten berri ematen da. Azken le-
roetan hauxe irakur daiteke: “Argazki andana ere agertuko du
[*Senperetik Senperera* liburuak], hauen artean, herriko bertsulari-
enak. Pierre Halsoueten argazki huntan, konparazione, Ganix
Halsouet eta Matxin Irabola ageri dira. Irabolaren ondoan, Fran-
txoa Iratzoki, bertzeak bertze, krida egiten zuena eta pilotaria
zena ikusten ahal da”⁴. Horra hor Matxin –esan nuen neure kau-
tan–, 1935eko Txapelketa Nagusian Basarri handiaren hurrengo
izan zena, Alkain, Txapel, Txirrita, Zepai eta maila goreneko
bertsolari andana bati aurrea harturik.

Argazkia txapelketa egunean ateratakoarekin konparatuz ge-
ro (ikus 4. atala), argi dago pertsona beraren aurrean aurkitzen
garena. Txapelketakoa sariak eman ostekoa da⁵, eta Matxin, tra-
jea eta korbata jantzita, Basarri eta Alkain zaharraren artean
agertzen da. Bisaia triste antzekoa du, ordurako gaixorik omen
zegoen-eta. Handik denbora laburrera joan zitzaigun mundutik.

Zergatik aukeratu zuen Manuel Lekuonak Matxin eta Ganix
Halsoueten argazkia bere libururako? Kontuan harturik Lekuona
epaimahaian⁶ egon zela 1935eko txapelketan, argazkiaren hautua
omenaldi modura uler daitekeelakoa daukagu, lapurtarraren bert-
sogintzaren balioak saritzeko modu amoltsu eta bihozkor bat.
Geroago ikusiko dugunez, *Literatura oral vasca* liburuan, aipa-
men txeratsu batzuk egiten dizkio Manuel Lekuonak Matxini.

3. Matxin Irabola: gizon txikia, herri filosofo handia

Martin Irabola Goya Lapurdiko Senpere herriko Matxinen-
gaina baserrian jaio zen 1879ko abenduaren 21ean. Laboraria

⁴ Dolosor, Franck: “Agur hunkigarria egin zaio Beñat Amestoy sei urtez erre-
tor izan denari”, *Ttipi-ttapa*, 501, 2009-09-03, 36. or.

⁵ Saio hasierako bi argazkietan, bertsolari guztiak agertzen dira Larralde eta
Matxin izan ezik, hauek antza denez, apur bat berandu heldu baitziren Pox-
polin antzokira.

⁶ Epaimahaia honako gizonok osatu zuten: Toribio Altzaga, Jose Ariztimuño
Aitzol, Manuel Lekuona, Joseba Olaizola, Txomin Olano eta Joseba Zubi-
mendik.

ogibidez, gaztetan morroi (mutil) egon zen zenbait baserritan. Era berean, maizterra (etxetierra) izanik, baserri baten baino gehiagotan bizi beharra suertatu zitzaion. Aitzolek⁷ eta Joseba Zubimendik⁸ dioskutenez, Xenpelarren iloba zen Matxin .

1911ko azaroaren 25ean Dominika Ermua senpertarrarekin ezkondu, eta hiru seme-alaba izan zituzten. Gizon ttikia genuen Matxin, isila eta lasaia, baina barneko bizitza sakonarekin: “Egiten zituen gogoeta horiek agertzen ziren bertsuak kantatzen zituelarik”⁹. Mayi Etchegaray senpertarrak honela deskribatzen du bertsolaria: “Arraroa zen, gizon pullit bat zen, arras airoa, maitia zen gaixoa!”¹⁰. Aita Lafittek aitortzen digunez, lehen gerla garaiko bertsolariaren artean Matxin zuen gogokoen¹¹. *Zeruko Argia* aldizkariaren 600. zenbakian¹², honela deskribatzen zigen Lafittek Senpereko bertsolaria:

“Gizon mehar bizi bat, eskola gutikoa, bainan zentzu handikoa. Boza ez baitezpada ederra, bainan azkarra. Ez zuen iz-

⁷ “Bersolari de vieja estirpe de poetas populares, puesto que era sobrino carnal de *Xenpelar*...” (“Matxin el koplakari, ha muerto” [*Euzkadi*, 1935-04-26], *Idazlan guztiak VI*, Erein, Donostia, 1987, 212-214).

⁸ Joseba Zubimendik, Matxinekin bertsoan sarrri jardundako J. Bautista Millox *Lukaskoimen* testigantza damaigu: “Gazterik hasia bertsoan, ausarta bizi-ki; Xenpelar senditik jatorria zuela ezin uka” (“Senperen, Matxin zena oroituz” [*Euzko Deya*, 1939-08-06], in *Bertso minez*, Alberdania, Irun, 2002, 146-151). Liburuaren azpititulua honakoa da: “Idazle baten gerla eta bertso oroitzenak”, eta bertan J. Zubimendik 1939ko otsailaren 5etik irailaren 10era *Euzko Deya* aldizkarian argitaratutako artikuluak batu zituen Koldo Izagirrek.

⁹ Dolosor, Franck: *Senperetik Senperera*, Elkar, Baiona, 2009, 120. or.

¹⁰ *Ibidem*, 120. or.

¹¹ P. Lafittek Matxini eskaini zion *Koblakariaren legea* liburuxka (Éditions “Gure Herria”, Bayonne). Hona hemen eskaintza: “Mattin Irabola / pertsulari maite zenaren / orhoitzapenetan. P. L.”.

¹² *Zeruko Argiak* zenbaki berezi hori beren-beregi opetsi zion bertsolaritza-ri (“Z. Argia: 600. Bertsolaritza-ri gorasarre”). Honela zioen editorial moduko artikuluak: “BERTSOLARIAK goraiatu eta maixutat hartu nahi ditugu 600garren ale honetan” (“Bertsolariak maixu”, *Zeruko Argia*, 600, 1974-09-01, 1. or.).

kiriaturen, ez eta irakurtzen ere. Hargatik hartze gaitza zaukan, eta zer nahi kantu xahar bazekien. Maitenik zuen kanta xaharra zen: *joan zait lana, joan zait loa, nebon ez dut pakerik*, amodiozko kantua. Bitxikeria aurkitu izan dut hemezortzi mendeko eliza-kantu bat hitz hoiekin berekin hasten zena. Matxinek maiz aire hori bazerabilan bere bertsoetan.

Kantatzean, haren gorputza ikara batean sartzen zen, irudi baitzuen *pitonisa* bere hiru zangotako atxemarkaren gainean.

Alegera zen, jostakina, zombait aldiz (edan eta) ausarta ere bai. Bainan ele sakonak ere heldu zitzaizkon, entzulea harririk uzten zutenak”¹³.

Jean Ithurriaguek *Un peuple qui chante* liburuan, zehaztasun interesgarriak eskaintzen dizkigu Matxinen izaera eta haren psikologia hobeto ezagutu ahal izateko. Era berean, Ithurriaguek Matxinen sinesmen sakona azpimarratzen du:

“C’était physiquement un petit homme, assez calme à l’ordinaire, mais qui vivait d’une vie intérieure d’une singulière intensité. Cette vie intérieure se traduisait, au moment des improvisations, par un frémissement de tous ses membres. Son regard très vif lançait des éclairs lorsque l’adversaire découvrait un point faible sur lequel il pût foncer. Si on le provoquait, il était terrible. Après boire, Mattin se déchaînait et sa verve était intarissable. Il fallait aussi l’entendre sur les sujets religieux.

C’est alors surtout qu’il manifestait sa sensibilité et son talent; car il était un homme pieux et de foi profonde”¹⁴.

Matxinek gutxitan zapaldu omen zuen eskola. Ez omen zuen ikasi idazten eta irakurtzen. Ez zen, haatik jakituria gabeakoa. Jean Pierre Soudre *Larreko* senpentar bertsolariak, ume-txoak zelarik, ezagutu zuen Matxin, eta dioskunez, eskolatik aparteko jakintza-iturriak izan zituen Matxinek:

Matxin sortzean aitamek zuten deitu Mattin Irabola

¹³ Lafitte, Piarres: “Bizpahiru orroitzapen lehengo bertsolariez”, *Zeruko Argia*, 600, 1974-09-01, 9. or.

¹⁴ Ithurriague, Jean: *Un peuple qui chante*, Edimpress, Paris, 1947, 65. or.

Oren bat ere ez du iragan horrek zapatzen eskola
Gogoan ongi hartzen zituen prediku ta epixtola
Pertsutan zuen arrazoinatzen eskoladunek bezala¹⁵.

Eskolatuek bezala arrazoitu ahal izateko jakituria hori, diru-
dienez, elizatik zetorkion Matxini. Mattin Treku bertsolari azka-
rrak¹⁶ azpimarratu egiten ditu Larrekok bertsoz esandakoak:

“Eskolarik ez zuen eta ez zakien idazten, ez irakurtzen eta
ezer ere. Eta bertsutan entzun eta harrituak egoten ziren asko,
nundik ikasten zuen, ez libururik eta deus ere ez zuen eta.

Eta harek, berak erraten zuen, zakizkien denak predikueta-
tik ikasten zituela.

Bertsu gutti jarriko zuen harek paperetan. Beharbada bat
ere ez. Haren bertsurik gutti aditzen baita. Bakarren batzu hola
ahotik ahora atxikiak. Bainan bertzelakorik ez”¹⁷.

Ikusten dugunez, eliza (prediku, epistola...) behin eta berri-
ro agertzen da lekukotasunetan kultura-iturritzat Matxinen for-
mazioan. Henri Duhauk ere, senperrarrak berak jaulkitako
esaldi bat aipatzen digu: “Karia hortarat [1986an eginiko ome-
naldia] egin lanean ikusten dugu Matxinek ziola *dakidan gu-
zia apezekin ikasia dut*”. Edozelan ere, jarraian, honako ko-
mentarioa egiten du Duhauk: “Bainan ez ote zuen *axalaren*

¹⁵ *Larreko* (Jean Pierre Soudre): “Matxin zenaz”, *Herria*, 1.858, 1986-06-19, 5. or.

¹⁶ Mattin Trekuren emazte Marik ere ondo gogoratzen zuen Matxin: “Matxin Senperekoa ezagutu nuen. Ene ahizpak bibitxiak sortu ziren eta Matxinen herrian, Senperen, bazen osaba bat. Ez zekien idazten ez irakurtzen, baina bertsoa maite zuen. Bi ahizpa horien bataioa egin zen eta delako osaba hark erran zion amari: *To, haur boriek bataiatzean behar dinagu Matxini ekarrazazi bertsoen emateko! Amak Matxinen aditzea bazuen, baina ez zuen ezagutzen. Ekarriko dinagu! Xilarreneko Ganixunek ekarriko din!* [...] Barna sartu zitzaidan haren bertsoetako alderdia. Bertsolari ona zen Matxin! Ddardara bazuen kantuan aritzean eta hari begira egoten nintzen, baina hari baino gehiago, nola deabru bertsoak ematen zituen, nondik ateratzen zituen!” (Elustondo, Miel Anjel: “Mari Treku: Nire denboran iruditzen zitzaidan bertsolariak Euskal Herriko patroiak zirela”, *Argia*, 1.949, 2004-06-20).

¹⁷ Treku, Mattin: *Etxe xokotik kantari*, Auspoa, 151, Zarautz, 1981, 73-74.

apaintzen ikasi apezekin, *mamia* herritar zaukalarik osoki bertulari gehienek bezala?¹⁸

Azala eliztar, *mamia* herritar... Izan ere, XX. mendera arte bederen, ukaezinezkoa izan da bigarren kultura-iturri herritar hori (etxea, auzoa...) euskaldunen artean. Gorka Aulestiak bitzuak azpimarratzen ditu: “Si del terreno de las generalidades nos trasladamos a la realidad concreta del pueblo vasco, observaremos que los dos grandes medios de transmisión oral fueron la cocina del caserío y la iglesia parroquial”¹⁹.

Lehenengo Mundu Gerra hastean, Matxinek 34 urte zeuzkan; hala ere, bertatik bertara ezagutu zuen Europa inarrosi zuen gudu hori: “Partitu ginen beraz guziak herritik / Gure familietan penak utzirik / Haur ttipi zonbaitekin andrea bakarrik / Gizona penatua hor ez da dudarik”²⁰. Datu gutxi daukagu Matxinek 14ko gerran bizi izandakoak zehazteko. Hala ere, badirudi gerran emandako denborak eragin kaltegarria izan zuela Matxinen osasunean: “Oraino 56 urthe zituen [hil zenean], baina gerla eginik buruen-buru, horrek erran nahi baitu osagarria zafratua zuela”²¹. Oro har, gerrako esperientzia, nahiko negatiboa izango zen Matxinentzat; izan ere, gerrari buruz idatzitako bertsoei bagazozkie (ikus 4. puntua), haren ikuspuntua zeharo kritikoa da. *Panpilli* senpertzar bertsolariak ere aipatzen du Gerla Handia Matxinen inguruan, gerratik etxeratzean ezagutu baitzuen Panpilli gaztetxoak Matxin:

¹⁸ Duhau, Henri: “*Matxin* senpertzar bertsulariaz”, *Maiatz*, 31, 1988-urria, 17. or.

¹⁹ Aulestia, Gorka: “Marcel Jousse y Manuel Lekuona: dos pioneros de la literatura oral”, *RIEV*, año 42, tomo XXXIX, N° 1 (1994), 32. or. Honako hau ere gehitzen du: “La mayoría de los vascos fueron iletrados (pero no ignorantes ni incultos) sobre todo hasta el siglo XIX. [...] Como el pueblo llano no sabía leer, el sacerdote leía en voz alta y la gente aceptaba y conservaba el mensaje religioso y oral a través de la memoria. De esta forma estos libros catequéticos escritos desde una perspectiva de literatura popular y oral pasaban más tarde a enriquecer el tesoro de la literatura mediante la memoria colectiva”.

²⁰ “Gerla handia (1914-1918)”, *Maiatz*, 31, 1988, 18. or.

²¹ “*Matchin* bertsularia”, *Eskualduna*, 1.828, 1935-04-19, 2. or.

Nik Matxin hori ezagutu dut arras gazte nintzelarik
 Etxerat jina hamalaukeko gerla hura finiturik
 Jaun horri beha egoiten ginen hor guziak xoraturik
 Haren orduko omore onak segur etzuen parerik²².

Hamaika plazatan abestu eta gero, Lehenengo Bertsolari Egunean (1935-01-20) parte hartu, eta handik lasterrera, apirilaren lehenengo egunetan, Baionako ospitalera joan beharra izan zuen, *pleurésis* batek-edo jota: “Bere burua etzuela ontsa kausitzen Elizakoak galdegin ditu berak aphezari astearte arratsaldean eta gero etcherat ekharri dute, eri handi”²³. Hurrengo asteko *Eskualduna* astekariak berri triste bat zekarren, Senperetik bidalia: “Fede ona, baita Izpiritu chuchena baitzuen, Jainko onak eman dio grazia bere azken arimako egitekoen bururatzeko. Halere irakurle maitea othoitz bat *Euskaldun handi* horren arimarentzat, eta familia gaichoari, denek hartzen dugu dolu zuen nahigabea”²⁴. Apirilaren bederatzian zendu zen, Senpere bere jaioterrian, 56 urte zituela. *Oxobi* handiak artikulua labur eta emozioz beteriko batez agurtu zuen zendu berria:

“Jainkoak bere ganat deithu dauku zazpi probintzietan ditugun bertsularietarik ezagutuena. Mattin hil da. Han edo hemen, herriko pestetan –geroago eta galde gehiago baitzuen orotaratz ez dugu iririk egiten ahalko Mattinen athermaldi polliteri. Bilkura edo biltzarre, aphez ala etchekojaun, lege-gizon ala miriku ez zaizko Mattini loriatuak egonen eta, batzuetan, nigar egite-rainokoan hunkiak ere; irri solasez bertzerik baitzuen Mattinek, gai ederrenez arin, garbi, aberats bertsuak bertsuen ondotik emaiten zaunkigularik, gogoak argitzen baitzauzkigun guhauri eta bihotzak sustatzen”²⁵.

²² *Panpilli* (Jean Pierre Zubiria): “Matxini ohore”, *Herria*, 1.857, 1986-06-12, 5. or.

²³ “Matchin bertsularia eri”, *Eskualduna*, 1.827, 1935-04-12, 2. or.

²⁴ “Matchin bertsularia”, *Eskualduna*, 1.828, 1935-04-19, 2. or.

²⁵ *Oxobi* (Jules Moulier): “Mattin Bertsularia?”, *Eskualduna*, 1.829, 1935-04-26, 1. or.

Handik hil batzuetara, bertsolari lagunek sentimenduz beterik gogoratu zuten hildako koblakaria Atharratzen eginiko Euskal Jaian: “Au cours du banquet, MM. Ligueix et Larralde furent très heureux dans leurs improvisations, surtout en évoquant la mort de nos chers bardes Matchin et Larramendi”²⁶.

Mende erdi geroago, 1986ko maiatzaren 17 eta 18an, Senpere herriak handikiro omendu zuen bere seme Matxin. Ospakizunen artean, bertso saio bat ere egon zen, eta bertan Iparraldeko bertsolariekin batera (Ezponda, Mihura eta Xanpun), Hegoaldekoek ere abestu zuten (Argiñarena, Eguzkitze eta Gorrotxategi). 1935eko txapelketan Matxinekin kantatu zuen Basarri txapelduna ere egon zen omenaldian, hizlari joan baitzen Senperera, 74 urte beterik zeuzkalarik. Era berean, Panpilli eta Larreko senpertar bertsolariak bertso-sorta bana eskaini zioten herritarrari. J. P. Soudre *Larrekok* honela amaitu zuen omenaldiko bere bertso-sorta:

Berroitameka urte baditu galtzen ginuela Matxin
 Min gaixto batek ereman zuen zilo bat zuela egin
 Lur huntan Matxin dohatsu bat zen Jaunak hartu du berekin
 Haren lorian kantuz hartzeko zeruan aingeruekin²⁷.

4. Matxinen bertsogintza

Gazterik hasi zen bertso kantari Matxin, eta, dirudienez, XX. mendearen hasierako hamarkadetan senpertarrak bertsotarako giro egoki eta aberatsa aurkitu zuen bere inguruan. Emile Larrek kontatzen digunez, familiar bertan, bazeukan norekin aritua bertsotan: “Eta bazuen arreba bat, *Mari*, hau ez zen plazetan ibiltzen, baina etxean anaiarekin aritzeko balio zuen”²⁸. Mattin Treku bertsolariak dioskunez, Matxinen alaba bat ere trebea omen zen bertsotan: “Alaba ere ba omen zuen bertsularia harek.

²⁶ *Eskualzalea*: “La grande journée basque de Tardets”, *Gure Herria*, 1935, 460. or.

²⁷ “Matxin zenaz”, *Herria*, 1.858, 1986-06-19, 5. or.

²⁸ Larre, Emile: “Ipar Euskadiko Bertsulariak”, *Jakin*, 14/15, 1980, 36. or.

Bainan gazterik joan zen hemendik Bordelera”²⁹. *Lukaskoin* Senperereko bertsolari zaharrak, 1939an, Joseba Zubimendiri kontatu zionez, 1910. urtearen bueltan Kanbo herriko plazan egindako bertsolari-lehiaketara hamar bertsolari aurkeztu ziren, euren artean bi emakume (bata azkaindarra, eta bestea itsasuarra). Beste emakume bertsolari bi aipatzen dira Lapurdin: Mari Hargain, Kanbokoa, eta Ana Etchegaray, Hazparnekoa³⁰. Izan ere, garai hartan, bertsoen oihartzuna Lapurdiko txoko askotara heltzen zen, zoli heldu ere: “Hazparne, Sara, Senpere eta Urruña herriak Lapurdi probintziako bertsularitzaren historian maiz aipatuak dira, bai eta ere Kanbo, Ezpeleta eta Luhuso”³¹.

Senpereri dagokionez, Matxinen garaiko hiru bertsolari aipatzen ditu Franck Dolosorrek³²: Gilen Larretcheberry (1855-1939), Jean Baptiste Millox *Lou Kaskoin*³³ (1868-1941), eta Gannix Halsouet (1875-1950). Horra hor, Matxinekin, lau bertsolari handi, laurak herri berekoak eta garaikideak, orduan bertsolaritzak Senperen zeukan indarraren erakusgarri! Era berean, zera zioskun Aitzolek: “Sempere era un venero fecundo de Bertsolaris. Era tradicional el que cada domingo, al salir de misa mayor, se congregasen los koplakaris, jóvenes y viejos, en los *ostatu* (posadas) del pueblo”³⁴. Lukaskoinek ere azpimarratu

²⁹ *Etxe xokotik kantari*, 74. or.

³⁰ Askoren artean: *Bertsularien artea*, Euskal Kultur Erakundea, Baiona, 1998, 38. or.

³¹ *Ibidem*, 36. or.

³² *Senperetik Senperera*, 121. or.

³³ Gorago ikusi dugunez, Joseba Zubimendik *Lukaskoin* modura idazten du bertsolariaren ezizena.

³⁴ Aitzol: “Matxin el bertsolari de Laburdi (Sempere, escuela de bertsolaris)” [*Euzkadi*, 1936-01-24], *Idazlan guztiak VI*, Erein, Donostia, 1987, 399-401. Hala ere, bertako semea eta bertsolaria den Jean Pierre Soudre *Larrekok* Franck Dolosorri aitortu zionez, bertsoaren errotze hori Senperen inguruko herrietan baino ahulxeagoa izan da historikoki: “Gisa guziz, Senperen bertsen inguruan ez omen da sekulan izan bertze herri anitzetan zen tira” (Dolosor, Franck: *Senperetik Senperera*, 122. or.). Beraz, ez dirudi Larrekok esandakoa bat datorrenik Aitzolen esanarekin, *sekulan* adberbioak zeharo marka-

egiten du Matxinen garaiko bertso-zaletasuna, baita euskararen errotze sakona ere: “Egungo egunetan [1939. urtearen bueltan] baino maiteago baitzen orduan eusko mintzaira eta koplaren pullita”³⁵. Matxinek, alde egitean, berarekin eraman zuen bertso-larritza zaharraren lekukoa; hala ere, bertso-iturria ez zen agortu Senperen. Hona hemen, zubi-lana egin zuten bertsolari batzuen izenak: Panpilli (1902-1992), Salvador Yarçabal (1916-2002), Larreko (1924), Xanpun (1928-2002)... Franck Dolosorrek dioskunez, gaurko gazteen artean ere, Senpererek badauka bertsoaren lekukoa nork eramana:

“Bertzalde, senperetar baten semeak ederki hartu du Matxinen lekukoa. Ekhi Erremundeguy Baionan sortu eta bizi da, baina bere familia Senperekoa da. Hamar urtetan bertsu eskola batean ikasi zituen bertsuaren teknikak; eta, primadera oraino hogoi aldiz ikusi gabea zelarik, Ipar Euskal Herriko lehen bertsu txapelketako finalean parte hartu zuen, Donibane Lohizunen, 2008ko hazilean”³⁶.

Ez da erreza Matxinen bertso-gintzaren arrastoak aurkitzea. Joseba Zubimendik, Matxin hil eta handik hiruzpalau urtera, zera zioskun: “Gure Matxinen bertsoak aurkitu nahi nituen, eta ezin”³⁷. Antzeko kezka bat adierazten zuen Aitzolek 1936an: “No fue esa nuestra evocación póstuma, avalorada con noticias minuciosas de la vida bertsolari de *Matxin*. Nuestras fuentes de información eran escasas. Ni existe nada escrito de estos vates populares, ni tuvimos la fortuna de hoy de conocer a Dargaitz”³⁸.

tzen baitu haren baieztapena. Edozelan ere, liburu bereko 120. orrialdean zera dio egileak: “Senperen bertsozaleak izan dira beti, eta herriak bertsolari haundiak ere eman ditu; hauen artean haundiena, beharbada, *Matxin* Irabola Goya (1879-1935)”. Gerra osteko giroari buruz ari zen Larreko?

³⁵ *Bertso minez*, 148. or.

³⁶ *Senperetik Senperera*, 122. or.

³⁷ *Bertso minez*, 148. or.

³⁸ *Idazlan guztiak VI*, 399-400. Aitzolek aurreko urtean (*Euzkadi*, 1935-04-26) idatzitako artikulu bati egiten dio erreferentzia.

Izan ere, Aitzolek Mixel Dargaitz saratar bertsolariarengan aurkitu zuen Matxinen arrastoa jarraitu ahal izateko behar zuen bide-erakuslea. Hona hemen, Dargaitzek Aitzoli esandakoa: “Yo escuchaba –nos declara Mixel– embelesado las improvisaciones geniales de *Matxin*, que tras sí arrastraba, por aquel entonces, a todo Laburdi y Benabarra. Sus mejores estrofas se me quedaron grabadas para siempre”. Bersto-bilaketa horretan, Aitzolek M. Dargaitz izan zuen informazio-iturri; J. Zubimendik M. Etchegaray. P. Lafittek, ordea, –ipartarra izaki– hurbilagotik ezagutu zituen Matxinen ibilerak... Denen testigantzekin ahalegintxoaa egingo dugu senpertarraren bertso-ibiblidea zehazteko.

Matxin bertsolaria definitzean, haren baitako filosofia sakona sarri ere sarri aipatzen izan da, baita poesiarako zeukan jaidura ere. Henri Duhauren iritziz: “Matxin, bertsularia izateaz gain, poeta eta filosofoa ere zela baginakien”³⁹. Izaera filosofiko horren erakusgarri izan liteke P. Xarritton eta P. Lafitteri eginiko sailkapen psikologikoa: “Le poète-improvisateur Matxin Irabola de Saint-Pée-sur-Nivelle, en Labourd, nous exposa aussi un jour sa psychologie, au cours d’un repas à Saint-Esteben, Basse Navarre, en 1929:

Il ya quatre sortes d’hommes dans le monde: le colérique, le sanguin, le flegmatique et le mélancolique.

Le colérique tient du feu: il est chaud et sec; naturellement maigre et grêle; convoiteux; ne tient pas en place; écervelé ou folâtre; roublard; ingénieux quand il s’applique. Il a le vin de lion, c’est-à-dire que s’il a beaucoup bu, il peut se fâcher, faire du tapage et donner des coups.

[...]

Le mélancolique tient de la terre: il est sec et froid; jaloux, pesant et triste; méfiant, malicieux et paresseux. Il a le vin de cochon; quand il a beaucoup bu, il a sommeil, il n’a d’autre envie que de dormir”⁴⁰.

³⁹ “*Matxin* senpertar bertsulariaz”, 16. or.

⁴⁰ Lafitte, P. eta Xarritton, P.: “Le caractère des Basques”, in Haritschelhar, Jean (ed.): *Être basque*, Privat, Toulouse, 1983, 108-109. P. Lafittek ere hitz

Kontuan hartuta, Matxinen frantsesa –berak esanda– nahiko mugatua zela, pentsatu behar dugu aipatutako sailkapena euskaraz egingo ziela Xarriton eta Lafitteri, eta hauek itzuli. Polita bezain interesgarria litzateke testu jatorra ezagutu ahal izatea, kultural eta linguistikoki balio handikoa dateke-eta.

Bertsolaritzaren historia kanonikoetan Matxinek leku mugatua –txikiegia ez esatearren– edukiagatik, esan behar da bere garaian senpertarra maisutzat hartua izaten zela, eta haren entzutea, gaur pentsa daitekeen baino handiagoa zela⁴¹. Izan ere, bere garaiko ospakizun nagusi askotan izan genuen kantari Matxin Irabola:

“Mais le maître des improvisateurs labourdins était, sans contredit, Mattin Irabola, de Saint-Pé-sur-Nivelle. Il ne savait ni lire ni écrire; il n’en fut pas moins un poète extraordinaire. La tradition orale a conservé fidèlement un grand nombre de ses improvisations. Mattin, en effet, fut un bertsolari très répandu, non seulement en Pays Basque français, mais aussi en Pays Basque espagnol, où il était appelé chaque fois que se donnait une fête importante: nous l’avons vu *disputer*, en compagnie de Larralde, au concours de Saint-Sébastien en janvier 1935”⁴².

Arrazoi du Ithurriaguek, Matxin Hegoaldeko ospakizun askotan egon baitzen kantari. 1922ko irailaren 15ean, Eusko Ikaskuntzaren III. Kongresuan abestu zuen senpertarrak; Gernikan, hain zuzen ere:

egiten digu Matxinen alderdi filosofiko horretaz: “Saint Pierre jaun apezpiku zenak erraiten ohi zaukun: *Horra gure filosofoa*” (*Zeruko Argia*, 600, 1974-09-01, 9. or.).

⁴¹ “Con este sobrenombre [Matxin] era conocido el bertsolari universalmente popular en la Euzkadi de las dos vertientes del Auñamendi. *Matxin*, el koplakari, poeta e improvisador en una pieza, había conseguido trasponer con su fama los límites de Laburdi, para ser una verdadera institución en Bena-barra y Zuberoa y llegar a ser popular en Gipúzcoa” (*Aitzol: Idazlan guztiak VI*, 212. or.). Bide beretik, Franck Dolosorrek zera diosku: “Hogoigarren mende hastapenean, Senpereko seme hau bertsulari ospetsuenetako izan zen” (*Senperetik Senperera*, 120. or.).

⁴² *Un peuple qui chante*, 65. or.

“A las tres y media, bajo los arcos de la plaza de la Unión, porque llovió, se celebró el concurso de bertsolaris. Se presentaron Martin de Iraola, de Saint-Pée-sur-Nivelle (Bajos Pirineos); Larralde, de Louhousa (B.P.); Pedro Tolosa, de allende el Bidasoa, residente en Beasain; el famoso bertsolari guipuzcoano Txirrita [...]. Todos ellos fueron muy aplaudidos, como lo fué el popular Embeita, que cantó un par de estrofas para cerrar la sesión”⁴³.

1930eko ekainaren 1ean, Euskaltzaleak taldeak Lehenengo Oleriti Eguna ospatu zuen Erreterian –*Jautarkol* olerkaria omendu zuen–, eta ospakizun nagusi hartan ere entzun ahal izan ziren Matxinen bertsoak, kantu lagun Larralde zuelarik.

Bigarren Aberri Egunean, 1933an, Donostiako Atotxako errebote plazan, jendetza ikaragarri baten aurrean kantatu zuen Matxinek. Orduko iturrien arabera, egun horretan 35.000 lagun batu ziren bertara Jose Antonio Agirre eta Telesforo Monzon jeltzaleen hitzaldiak entzuteko: “Izlarien aurretik Matxin lapurditar bertsolari jatorrak bertso eder-ederrak abestu ziotuen”⁴⁴. Aldra izugarri haren aurrean, Matxinen *boz mebe eta ttikiak* eskertuko zuen bozgorailuen laguntza⁴⁵.

⁴³ Biona, G. de: “Crónica General del Congreso de Guernica”, *Euskalerriraren Alde*, 1922, Tomo XII, 339. or.

⁴⁴ *Argia*, 1933-04-13, 1. or. Agirre eta Monzonez gain, beste hizlari batzuk ere izan ziren Donostiako ospakizunean, bai euskaldunak (Ernardorena, Urreta...), bai kanpotik etorritakoak (Ammende, Maxpons, Otero Pedrayo...). Holako hizlari eli bati atariko egitea, eta hainbeste pertsonaren aurrean kantatzea, duda barik, ohore handia izango zen Matxinentzat. Era berean, holako entzulego baten aurrean jarduteak argi uzten du Matxinek Hegoaldean zeukan izena eta itzala.

⁴⁵ Hona, zer dioskun Mattin Treku bertsolariak Matxinen ahotsaz: “Panpale [Larralde] eta hori ibiltzen ziren beti. Panpalek boza ederra, eta bera ere gizon ederra. Matxin, ni bezala, kaxkarra; eta argala ta tximela. Boza ttiki batekin, *tta-tta-tta* kantatzen zuen beti. Bainan bai buruz ernea ta abila” (*Etxe xokotik kantari*, 73. or.). *Herria* aldizkarian, bide beretik: “Botz mebe eta ttiki bat omen zuen, altabada orduan ez bide zitaiken bozgorailurik Euskal Herriko plazetan. Bainan, bego hortan ez baitu bozak egiten bertsularia, edo hobeki erran, nahiz boz ederra duena gozoago den aditzeko, bertsuzaleak gehien gehienik so egiten du bertsuaren mamiari eta egiturari” (“Senperen omenaldi Matxin Irabola zenari”, *Herria*, 1.853, 1986-05-15, 3. or.).

Iparraldeari bagagozkio, Aitzolek Euskaltzaleen Biltzarra elkartearen urteroko batzarrekin lotzen du Matxin: holakoetan, senperrak “sentaba cátedra”, diosku. Batzarrotan Matxinek izaniko parte hartze gogoangarri bi iruzkintzen ditu Hernaniko euskaltzale sutsuak:

“Una, en Donibane Garazi, en 1931, y otra, en Luosua, en 1933. En aquella, porque con su acerada sátira fustigó el plácido vasquismo de quienes no se afanaban en atraer a las jornadas euskeldunes de la Sociedad indicada a los jóvenes, colaborando con sus afortunadas improvisaciones a los ruegos de un orador patriota de la península, que reclamaba ardientemente la presencia del elemento juvenil. Y en Luosua, porque *Matxin* cantó a su patria Euzkadi con fe ardiente y paladinamente, sin rebozos. Patria a la que iba conociendo concretamente, merced al comercio e intercambio espiritual con los nacionalistas vascos, a cuya causa se iba inclinando ostensiblemente”⁴⁶.

Matxinen sentimendu politikoa eta izaera kristaua direla-eta, Aitzolek Sara herrian eginiko bertsolari lehiaketa baten gertaturikoa kontatzen digu. Izan ere, “en cierta ocasión, su patriotismo vasco y su indiferencia por lo francés mereció que lo descalificaran”. Gerla Handia lehertzeaz zegoen, eta, antza denez, saioko gaiak nahiko *gerra zaleak* eta erasokorrak izan ziren. Egoera horretan, Matxinek bere bihotz kristau eta euskaldunari eman zion hitza; eta, hori dela-eta, deskalifikatua izan zen⁴⁷. Hala ere, esan behar da, urte batzuk lehenago –1910. urtearen bueltan–, lehenengo saria irabazi zuela Saran bertan⁴⁸.

⁴⁶ *Idazlan guztiak VI*, 213. or.

⁴⁷ Hona hemen, Aitzolen ustez, deskalifikazioa ekarri zion ahapaldia: “Ingle-sa ba-zait ere / orobat prantzesa, / Yesusek erraiten du: / etsai maite beza; / oroen gain baino / bihotzak ba-leza / maitatu euskalduna; / kontraz litzake bajeza” (*Idazlan guztiak VI*, 401. or.).

⁴⁸ Datu hau Mixel Dargaitzek eman zion Aitzoli. Aitzolen artikulua 1936ko urtarilaren 24an argitaratu zen, eta Dargaitzek zioenez, 25 urte lehenago gertatu zen esandakoa. Dargaitzen arabera, Matxin arratsaldean heldu zen Sarako lehiaketara, Bidart herrian kantatu eta gero. Ikusten dugunez, leku bitan kantatu zuen Matxinek egun berean. Horrek argi erakusten du Matxinek

Matxinen beste ezaugarri bat haren lehiakortasuna zen: “Matxinek denak zehatzen zituen, ba Frantzian eta ba bertzaldian”⁴⁹. Kantari nekazezina, abestea biziki maite zuen, eta kantu laguna azpiratu arte, gogotsu ere gogotsu ekingo zion bertsozko gudu dialektikoari. Manuel Lekuonak, behin, Sarako jaietan gertatutakoa kontatzen digu. 1925eko iraila zen, eta betiko moduan bertso-lehiaketa antolatu zen Sara herrian. Bertsolariak, Matxin eta Larralde; gaia –epaimahaiko batek bertsoz emanik–, orduko modaren arabera gona luze eta laburrak:

“El debate duró una hora, hora y media. A pesar del creciente interés de las estrofas que sin cesar iban fluyendo, hubo que poner punto final al debate. Iba siendo tarde. Y sobre todo se hacía ya imposible continuar diciendo más razones sobre el tema, sin que las estrofas resultasen algún tanto picantes... Y el debate terminó en la plaza; pero, como casi siempre ocurre, continuó en la taberna desbordante de público de hombres donde con más libertad pudieron despacharse a sus anchas”⁵⁰.

Aitzolek antzeko pasadizo bat kontatzen digu. Behinola, Donibane Lohizunen eginiko bertso-gudu baten, arratsaldea aurrera zihoala-eta, epaimahaikoek erabaki zuten saioa bertan behera uztea. Hala ere, Matxin eta kantu lagunak bertsoaren suak hartuta zeuden, eta eurek euretara antolatu zuten jai, *debalde festa preparatu* zuten:

“Mas cuál no sería el asombro de los organizadores de aquella fiesta al enterarse a la mañana siguiente que los bertsolaris contendientes, y con ellos bastante público, sostuvieron su lucha hasta las altas horas de la madrugada y que la autoridad se vio precisada a tomar la medida radical de cortarla violentamente para evitar un desorden público”⁵¹.

garai hartan zeukan sona eta ezagutza. Bide beretik, esan beharra dago, Txiritak, Iparraldera bertsotan joaten zenean –gehienetan–, Matxin izaten zuela kantu lagun.

⁴⁹ *Senperetik Senperera*, 120. or. (Ganizon Zamoraren testigantza).

⁵⁰ Lekuona, Manuel: *Literatura oral vasca*, Añamendi, Donostia, 1965, 28. or.

⁵¹ *Idazlan guztiak VI*, 213. or.

Edozelan ere, Matxinen une gorena bertsolaritzan, 1935eko urtarrilaren 20an, Donostian ospatutako Lehen Bertsolari Eguna da. Txapelketa arrakastatsua izan zen. Oholtzan hogeit hamar bertsolari egon ziren, euren artean orduko koblakaririk entzutetsuenak: Basarri, Lexo, Txapel, Txirrita, Zepai... Matxin Irabola ere hantxe egon zen; osasunez makal, baina gogoz sendo ere sendo.

Eguna helduta, goizeko hamarretarako jendetza ikaragarria zegoen antzokiaren kanpoko aldean, eta hamar t´erdiarako Poxpolin zaharra bertsozalez gainezka zegoen, bertsolaririk gehienak ere bertan zeudela. Saioa hamaika-hamaiketan hasi zen Aitzolen berba batzuekin. Gero Joseba Zubimendi gai-jartzaille eta saio-zuzendariak era klasikoan bideratu zuen lehenengo ariketa, bertsoz: “Bakoitzak nai duena / lezake kantatu; / doiñun azke zerate / gaia aukeratu; / baiñan beti bertsoan / zuek gogoratu / euskaldun zeratela / ta ongi mintzatu”. Iparraldeko bertsolari biak apur bat berandu heldu ziren⁵², eta horrek aukera eman zien Poxpolin antzokira bildutako bertsozaleei berebiziko harrera beroa egiteko. Honela gogoratzen zuen J. Zubimendik ipartar bien sarrera:

“Begi aitzinean daukat [Matxin], Larralde luhusoar adiskidearekin bat eginik, aretoan sartu ziren garaia. Hura txalo-hotsa lapurtar bertsolarietara! Euskaldun anaiarteko maitasun hertsia estuago eta argiago geroztik nire baitan. Mehexka eta ez handia gure gizona, eri samar zebilelarik, zahar itxura, adinak zioena baino ausarkiago”⁵³.

Ez daukagu datu askorik Matxinek eginiko saioari buruz; bertsoak ere bi baino ez. Badaude, hala ere, lekukotasun batzuk argi apur bat eman diezaguketenak. Lehenengo saioan, esan dugun bezala, aske ziren bertsolariak nahi zuten neurrian,

⁵² Hori dela-eta ez dira agertzen txapelketako argazki ofizialetan. Badirudi, sasoz heldu zirela Donostiara, baina gero, antza, arazoak izan zituzten Poxpolin aretoa topatzeko.

⁵³ *Bertso minez*, 146. or.

eta nahi zuten gaiari kantatzeko. Kontua da, ariketa hasi zenean, bi ipartarrak falta zirela, eta Matxin eta Larralde heldu zirela Alkain kantatzen hasi zen momentuan. Urnietarraren ostean, Matxini tokatzen zitzaion abestea, baina honek ez zuen astirik izan ariketaren nondik norakoez jabetzeko:

“Alkain cantó una bellísima estrofa de las de nueve puntos, con la tonada de *Betroi baten tratua*. Matxin la escuchó atentamente, y luego, en la creencia de que la tonada y el asunto eran obligados, siguió sin inmutarse, el hilo del asunto iniciado por Alkain, empleando la misma tonada, sin fallar en ninguna de las nueve consonantes obligadas de la estrofa, con la admiración consiguiente de todos los que se pudieron hacer cargo de las circunstancias que en el caso habían concurrido”⁵⁴.

Era berean, Manuel Lekuonak kontatzen digu zirrara berezia sortarazi zuela Matxinek Poxpolineko entzuleengan, “Haurtxoa sehaskan” doinua erabilia, abestutako zenbait bertsorekin⁵⁵. Jose de Artetxek ere aipatzen du ipartarren doinu-erabilera samurrak bertsozaleengan sorrarazi zuen atsegintasuna⁵⁶.

⁵⁴ Lekuona, Manuel: *Literatura oral vasca*, 95. or. Alkainen semeak kontatzen du nola prestatu zituen txapelketako lehenengo bertso biak aitak: “Donostia’n lendabiziko bertsolari-txapelketa antolatu zutenean, orduko agintari jaunak nere aita joatea gogotik nai zuten, eta ala eskatu zioten. Ta etxean bere lapitzarekin an jarduten zan, burura etortzen zitzaion ura paretan apuntatu eziñik, ordurako eskuan dardar aundia zuen da. Nik orduan, ura ikusirik, esan nion: –Aita, emen gauza bat ikusten det: lendabiziko bertso ori ez daukazu nere ustez ongi. Onela egingo degu: nik lendabizikoa antolatuko dizut euskera garbiz, eta bigarrena zuk neri esan da nik idatziko dizut. Alaxen egin genduan. Joan zan Donosti’ra txapelketa ortara, ta bi bertso oiek oso txalotuak izan ziran” (Zavala, Antonio: *Alkain aita-semeak*, Auspoa, 91, Donostia, 1970, 87-88). Testigantzak areagotu baino ez du egiten Matxinen meritua.

⁵⁵ Dorronsoro, Joanito: *Bertsotan II (1936-1980)*, GIE, Zarautz, 1988, 161. or.

⁵⁶ “Es dulce casi siempre [Matxin] y, como el benabarro [Larralde], plasma sus poesías en el aire de una simpática canción de cuna laburdina *Lo, lo ene maitea*... que todos los oyentes, al salir del concurso, se empeñaban en recordar tarareándola. Pero Matxin, como Alkain el de Urnieta, es incisivo y mordaz cuando quiere” (Artetxe, Jose de: “Una fiesta inolvidable. Alto exponente de nuestro ingenio y cultura”, *Euzkadi*, 1935-01-25, 1. or.).

Laugarren eta azken saioan, ofizioak emanda, bertsolari bakoitzak bost bertso abestu zituen. Ofizioen banaketa bertso-saioaren hasieran egin zen, baita nork norekin kantatu behar zuten zehaztu ere. Jarduera honetan, orduko prentsan Matxin (ardo-saltzailea) eta Larralde (edalea) ipartarrek eginiko saioa goraiatzen zen: “Larralde, el benabarro, y Matxin, el laburdino, ofrecen aquí al público una pugna desternillante”⁵⁷; “Aien esakera zorrotz eta barregarriak! Aien alkarri ziri-sartzeak!”⁵⁸; “Novedad, intención, celebridad en la concepción de las ideas y seguridad en la dicción de las estrofas y una gran originalidad en el papel de *ardosaltzale* –tabernero– que a *Matxin* se le adjudicó, fueron cualidades que subyugaron al auditorio en tema tan vulgar y tan traído y llevado por los bertsolaris”⁵⁹.

Matxini dagokionez, tamalez, bertso bi baino ez zaizkigu heldu, bitzuak hirugarren saiokoak, hain zuzen ere⁶⁰. Saio horretan bertsolariak hiruna bertso abestu behar izan zituzten, Zubimendi jaunak puntua jarrita: “Asi dezagun berriz / bertso-tan saioa, / nik oiñak emanikan / or yarraitzekoa”. Hona hemen Matxinen bertsoak:

*Nolatan artu dezu
orren erantzuna...?
Laxter esango dizut
ori ere gizona.
Gose ta egarria
ez da gauza ona.
Nun dezu bazkaria
prestatu dezuna?*⁶¹

⁵⁷ Ibidem, 1. or.

⁵⁸ *Argia*, 1935-01-27, 2. or.

⁵⁹ *Aitzol: Idazlan guztiak VI*, 212. or.

⁶⁰ *Bertsolari Guduak 1935-1936* liburuan, zein *Yakintza* aldizkariaren 13. zenbakian (1935-ilbeltz-otsailla), lehiaketa horretako 45 bertso-ko sorta auke-ratu bat irakur daiteke.

⁶¹ Joseba Zubimendik “Senperen, Matxin zena oroitzuz” artikuluan zera dio: “Egun hartako bertso bat jaso genion; era zailenean egiten zena, hasiera bes-

*Au da buru austeko
 lana daukatena...
 Orrek ematen digu
 biotzean pena.
 Zu buru austetan da
 egarriak dena,
 nik nai nuke orain yoan
 zurekin barrena⁶².*

Hiru orduko lehia bizia amaituta, bazkalostean, arratsaldean, eman zuen epaimahaiak ebatzia: txapelduna, aho batez, Basarri; bigarrena, Matxin; hirugarrena, Zepai; eta laugarrena, Alkain⁶³. Epaimahaikoen azken ebatzian irakur zitekeenez, berdintasun handia egon zen puntuazioen artean.

Matxinek lortutako bigarren postua garrantzi handikoa da, dudarik gabe. Alde batetik, eri antzean aurkeztu zelako txapelketara; eta, bestetik, txapelketa Hegoaldean egin zelarik, entzule gehienak, epaimahaikoak, bertsolariak (hogeitik hamazortzi)... mugaz honanzko moldeetara (doinuak, euskalkiak...) eginago zeudelako. Henri Duhauk oharpentxo hauxe egiten du: “bertsugintzan, euskalkien arazoa hain handia izanik, erreski asma bederen dezakegu arazo hori izan ez balitz beharbada gehiago ere mereziko zukeela Matxinek... Bainan, bego hortan gure sendi-

tek emandakoa, alegia” (*Bertso minez*, 146. or.). Edozelan ere, bai *Bertsolari Guduak 1935-1936* liburuan, bai *Yakintza* aldizkariaren 13. zenbakian, bertso bi agertzen dira, irakurleak orriotan dituenak, hain zuzen ere. Era hone-tara iruzkintzen du Zubimendik lehenengo bertso hori: “Bertso honen aztertzea beharreko dugu. Matxin, Lapurditik Donostiara goizetik irtenda, bederatzietarako heldua zen. Berehala bertsotan hasita, eguerdia inguru hau kantatu zuenean. Bertso-saio guztian ez zitzaien ez jan ez edateko eman eta, jakina, gose-egarriak egon behar; baina ez isilik. Bere ziria non sartu, zulorik txiki-ena atxeman orenean, zapla!, sartu gure bertsolariak” (*Bertso minez*, 147. or.).

⁶² Bigarren bertsoan ere, badirudi Matxinek berriro heltzen diola Zubimendik azaldutako arrazoiketari.

⁶³ Diru sariak 100, 75, 50 eta 25 pezetakoak izan ziren, hurrenez hurren.

mendukeria”⁶⁴. Hegoalde honetan ere, bazegoen arazo horieki-ko sentsibilitatea. Hona hemen Aitzolen iritzia:

“Es de advertir que para salir airoso en esta contienda tenía *Matxin* que vencer dificultades que los otros bertsolaris, gipuzkoanos y bizkainos, no hallaban a su paso. Y eran estos obstáculos, entre otros, las melodías a las cuales debían sujetarse los improvisadores, y que para el laburtano y el benabarro no eran familiares, así como también algunas terminaciones, en consonantes o asonantes, no usuales en aquellos dialectos. Precisamente por estas dos dificultades desmereció no poco el buen koplakari benabarro, Larralde”⁶⁵.



Bertsolari Txapelketa Nagusia (1935)
Ezkerretik eskuinera: Basarri (txapelduna), Matxin (txapeldunordea)
eta Alkain (laugarrena) Zepai (birugarrena) ez da argazkian agertzen.

⁶⁴ *Maiatz*, 31, 1988, 17. or.

⁶⁵ *Idazlan guztiak VI*, 212. or. Dakigunez, Aitzol epaimahaiko izan zen 1935eko txapelketan.

Matxin Irabolaren bertso batzuk

Aurreko atalean, Matxinek bere bertso-bizitzan kantatutako azken bertsoetariko bi aipatu ditugu, bitzuak Lehenengo Bertsolari Eguneakoak. Baliteke azkenak izatea, kontuan hartzen badugu, txapelketan parte hartu, eta handik lasterrera hil zela. Puntu honetan atzera joko dugu, haren bertso-bildumatxo bat osotzeko, bertsoak han-hor-hemen sakabanaturik daude-eta.

Joseba Zubimendik Matxinen bertsoen bilaketan, haren bertsoeren bat edo beste gogoan zituztenak idoro zituen (Etcheberry, Zamora, Halsuet...). Esaterako, ahoz aho zebilen hurrengoa jaso zien. Hona hemen testuingurua: “Gernikan bertsolari neurketa omen zen eta gure Matxin Lapurditik bertaraino joan. Suieta, guk diogun *gaia*, zazpi probintzia euskaldunak kopla batean sartzeari omen zen, eta hara bertan Matxinek asmatutakoa:

Bizkaia ta Gipuzkoa,
Alaba ta Naparra,
Xubero, Basse-Nabarre,
ni berriz lapurterra,
zazpiak bat egiteko
etorri naiz onara.
Kanta biba eskualdunak
biba, biba eskuara!”⁶⁶.

Pierre Lafittek dioskunez, Matxinek, lantzean behin, teologian ere sartzen zuen *sudurra*, eta bere baitako iritziak jaulki. Kasu honetan bekatuaren eta damuaren inguruan jardun zuen senpertarrak. Hona hemen Lafittek argitaratutako bi bertsoak:

Bekatu egin gabe
nula nakike nik
Jesusen badudala
zinez maitasunik?

⁶⁶ *Bertso mizez*, 148. or.

Damuak daut salatzen
 genez Haren ganik
 bihotzean, trixtea
 ez dudala onik.

Etxen gertatzen bazait
 neure emaztea,
 edana naizelarik,
 itsuski joitea,
 gero penaren penaz
 urrikiz betea
 maiteago baizik ez
 dut ene maitea⁶⁷.

Aipatuta daukagu nola irabazi zuen Matxinek lehenengo sari bat Sara herrian, 1910. urtearen bueltan. Hurrengo ahapalditxoan, senperrak horren berri ematen digu. Lerrootan, bestalde, argi agertzen da Senpereko bertsolariaren sinesmen sendoa. Bertsoa Mixel Dargaitzek gaztetan entzun zion Matxini, eta grabatuta geratu zitzaion gogoan. Gero Aitzoli eman zion horren berri:

Adizkidea, ona nun naizen
 Bidartetik yina;
 Andik partitzean otoizturik
 Bidarteko Ama Birjina.
 Ura dala medio irabazi dut
 Sarako lehen prima⁶⁸.

⁶⁷ *Zeruko Argia*, 600, 1974-09-01, 9. or. Pasadizo hau ere kontatzen digu Lafittek: "Harekin [Matxinekin] izan ginen zombait lagun Donostiako sagardotegi batean, bertsolari batzuen gana. Ez ziren *bertsoka* ari, baina *tiradaka*. Aire bat bazuten aise luza edo labur zitakena; gisa hortan koblak bazituzken batean bortz puntu, bertzean zortzi edo hamar, gogoak eman arau, muga zuzenik gabe. Matxinek bitxi atxeman zuen era hori".

⁶⁸ *Idazlan guztiak VI*, 399. or. Metrikari dagokionez, esan beharra dago aha-paldia ez dela batere erregularra. Seguru asko Dargaitzek mamia gordeko zuen buruan, eta gero gutxi gorabehera tolestuko zuen. Berak diotso Aitzoli, etxera bidean *errezitatu* (*recité* agertzen da testuan) egin ziola ahapaldia herriko abadeari, eta honek hiru libera eman zizkiola. Edozelan ere, metrikaren

Mattin Treku aheztarrak Irabolak Saran kantatutako bertso bat zuen gogoan, ez berak bertatik bertara aditutakoa, besteri entzundakoa baino. Panpale⁶⁹ eta Matxin ziren kantari plazan, eta ofizioak izendatzean, Panpaleri “ardoa”, eta Matxini “ura” defendatzea suertatu zitzaien. Hona hemen Matxinek urari botatako lehenengo bertsoa:

Arnoa baino askoz hobia
derizkiot dela ura,
garbitzeko ´re behartu izan naiz
ni gauza hortaz ardura.
Hartaz ninduten ni bataiatu
sortu nintzianian mundura,
ta hari esker esperantza dut
joatea gero zerura.⁷⁰

Beste behin, Senpereko jaietan Ganix oihantzaina⁷¹ eta Matxin izan ziren bertsolari. Gaia herriko auzapezak eman zien:

aldetiko gorabeherak nabarmenak dira Aitzolek Dargaitzeri hartutako bertso-rik gehienetan.

⁶⁹ Jean Pierre Larralde luhusoarra (1886-1945), Matxinen ohiko bertso laguna Iparraldeko plazetan. Luhuso Lapurdin badago ere, kronika askotan, baxena-fartartzat agertzen da.

⁷⁰ *Etxe xokotik kantari*, 74. or. Bestalde, Aitzolek dioskunez, antzeko egoera bat suertatu zitzaion behin Matxini Sarako ostatu baten, jendea mezatatik irten eta gero. Antza, ostatuan zegoen batek komentario bat egin zuen esanez, berak ez zuela urik deusetan ibiltzen. Matxinek entzunaz batera erantzun zion: “Gizon onen arrazoinak / orain ni nau arritzen, / zeren baitio ez duela / urik deusetan ibiltzen. / Atzo ni aritua naiz / bukata zuritzen, / urik izan ez banu / etxean ongi nintzen” (*Idazlan guztiak VI*, 400. or.).

⁷¹ Ganix Halsouet senperrarra (1875-1950). Lekukotasunetan, sarri agertzen da Ganix Matxinen bertso lagun modura. 1986an Matxini eginiko omenaldian, Panpillik zein Larrekok bitzuak aipatu zituzten. Panpillik gerla handiaren osteko besta bat aipatzen du, gerlarien omenez egin zena: “Beti gogoan atxikia dut orduko orhoitzapena / Lehen aldikotz entzunik Matxin eta Ganix oihantzaina” (*Herria*, 1.857, 1986-06-12, 5. or.). Larrekok ere, gaztetxoa zela ezagutu zuen Matxin, eta honek ere Ganixekin gogoratzen du: “Bertzaldi batez entzun ginuen Ganixekin Ehaltzean / Irri karkailaz lehertzen ginen hoik pertsea finitzean” (*Herria*, 1.858, 1986-06-19, 5. or.).

Ganix uraren alde, eta Matxin ardoaren defendatzaile. Ikusten dugunez, kasuon justu aurrekoaren kontrako trantzean suertatu zen Matxin. Guztira hamasei zortziko txiki abestu zituzten. Bertsook *Piarres* nobelan argitaratu zituen Jean Barbierrek, eta bertan aurki ditzake irakurleak⁷². Hona hemen, sortako lau bertso (III-VI) Matxinek arrazoitzeko zeukan abilezia ikusteko:

Ganix

Baditake arnoa dautazun ikusi
Jaunak egin gauzarik ez baitzaut itsusi;
Bainan gauza bat, Matxin, zuk behar onetsi
Bataioko uretan ginela ikuzi.

Matxin

Bataioan, hala da, ura baliatu,
Baliatzen oraino Jaunak nahi baitu...
Bainan Gorputz Sainduan, hark ura baztertu,
Eta kalitz barnerat arnoa hedatu.

Ganix

Jainko horrek munduan lurrak egin ditu,
Ibar zelaiak ere nun nahi moldatu,
Ahurtaraka aldiz mendiak altxatu...
Hiru aldiz gehiago urak tu largatu.

Matxin

Ur sobera edanik uhalde handian,
Ito ziren jendeak mundu zabalean;
Noe zen bakarrikan salbatu untzian...
Aihena landatzeko bere mahastian.

Matxinen beste bertso-sorta garrantzitsu bat 14ko Gerla Handiari buruzkoa da. Esan dugunez, bera bertan egon zen, baina gerraren gaineko jarrera eta ikuspuntua askoz ere kriti-

⁷² Barbier, Jean: *Piarres*, S. Sordes, Baiona, 1926, 209-214. Ikusi, era berean: *Piarres I* (Ramon Sanchez Zabaletaren edizioa), EEE-Ibaizabal, Bilbo, 1992, 159-162. Henri Duhauk ere argitaratu ditu: *Maiatz*, 31, 1988, 24-25.

koagoa da orduko ipartar gehienena baino. Henri Duhauk zera zioskun bertso-sorta honetaz 1988an:

“Berriki eskuratu ditugu, Olhagaray itsasuarraren bitartez, Senpereko Matxin Irabola zenak (1879-1935) GERLA HANDIAZ eman bertsu ohargarri hauk. Ez dakigu xuxen zoin urtetakoak diren. Diotenaz, nehork ez ditu publikatu nahi ukan bere denboran. Dena den, Matxin bezala *bamalaueko gerla* ere deitzen dugunari jazarri zirenak beharbada guk uste baino gehiago bada lekukotasun anitzik ez bada gelditu ere. Bederatzi puntutako zazpi bertsu hauk beraz holako lekukotasun eskasiaren erdian urre eta zilarrak bezain baliosak eta estimagarriak gertatzen zaizkigu”⁷³.

Izan ere, Matxin oso urrun dago garaitsu horretan Iparraldean entzun eta irakur zitezkeen planteamenduetatik (Mugaz honunzko iritziak, oro har, ezberdinak dira⁷⁴). 1914ko abuztuaren 7ko *Eskualduna*-n goiburu esanguratsu hauxe irakur zitezkeen: “Gerla Haste-Biba Frantzia!”. Zenbaki berean, “Irakurtzaleri” izeneko editorialean argi ere argi agertzen da astekariaren jarrera ideologikoa: “Ukan dezagun konfiantza gure armadetakoa aitzindarietan: egin dezotegun kreit, behar den guzia eginen dutela. Kreit gobernamentuari ere: berriak goizago edo berantago beren tenoren jakinen ditugula”. Eta aurrerago: “Hau da berriz *mobilizzazione* gaitza! Egundaino Frantzian ez da ikusi holakorik. Hainbertze gizon, holako ordre ederrean, hoin fite, oro utzirik, denak soldado. Gerla behar badugu, doala gerla. Biba Frantzia!”⁷⁵.

Gerra bukatuta, 1920ko urtarrilean, Jean Barbier Senpereko erretore eta idazle ezagunak “Gerla Handiko Kantuak” izeneko bertso-sorta mardula idatzi zuen⁷⁶. Hogeita bost zortziko nagu-

⁷³ *Maiatz*, 31, 1988, 16. or.

⁷⁴ Aita Zavalak Lehen Mundu Gerra eta bertsolaritza aztertzen du “Bertsolariak eta Europako Lenengo Gerratea (1914)” artikuluan, baina Hegoaldera mugatzen du bere azterketa interesgarri ere interesgarria (*Euskera*, IV, 1959, 183-206).

⁷⁵ “Gerla Haste-Biba Frantzia!”, *Eskualduna*, 1914-08-07, 1. or.

⁷⁶ Ikus: *Maiatz*, 31, 1988, 20-23.

si dira, eta euretan izpiritu erlijioso-gerlazale-patriotikoak beratu egiten du sorta osoa: “Gerla handiko soldado gaitzak zuen ongi gorestekoa, / Otxalde eta Elizanburu koplari ziren behar-ko” (II); “Bihotzean ezarri ondoan gure Nausi Jesus Ona, / Lerro lerro joan ginen oro, etsai higuinaren gana” (IV); “Gora beraz Frantses soldadoa, gora bai mila ta mila!” (XXIII)...

Matxinen bertsoetan, baina, ez dago holakorik. Matxinek, fededun zintzoa izanagatik, ez du erlijioa erabiliko bere arrazoiak indartzeko; azken bertsoan, hori bai, Jainkoa ipiniko du gerla-egitada guztien juje: “Jainkoak jujaturen tik horiek denak”. Izpiritu gerlaria ausente dago Matxinen bertsoetan: “Gu penez higatzen / Elgarren xahutzen / Bat bertzia hiltzen / Odola ixurtzen / Bertze hainitz urrundik irriz asetzen”. Eta patriotismoaren gaineratik, justizia aldarrikatuko du senpertarrak behin eta berriz, pobreen sufrimenduei esker egiten baitute gora askok eta askok: “Haundiak ari dira ttikiak manatzen / Pobrearen indarrez galonez altxatzen / Ohorez haunditzen / Mirailez beztitzen / Diruaren biltzen / Intresen doblatzen / Gu horien manutik elgarren hiltzen”. Badago aldea, zinez, Barbier eta Matxinen bertsoen artean! Ez da harritzekoa, beraz, Duhauk dioskuna, alegia: “Diotenaz, nehork ez ditu publikatu nahi ukan bere denboran”. Hona hemen sorta osoa⁷⁷:

I
 Ene izpirituan hasten naiz pentsatzen
 Gizonaren bizia zer gisetan den
 Egia ez da errex xuxen esplikatzan
 Hainitz justizia baitute ezagutzen⁷⁸

⁷⁷ Gorago aipatu dugunez, Henri Duhauk bere lanean zazpi ahapaldiko sorta bat argitaratu zuen. Harrezkero, iaz, 2009. urtean, Franck Dolosorrek bere *Senperetik Senperera* liburuan (123-125) Matxinen “1914-1918 Gerlako kantua” sorta argitaratu zuen, baina sorta horrek zortzi ahapaldi ditu, hots, bat gehiago Duhauk argitaratutakoak baino. Lehenengo zazpi ahapaldiak oso antzekoak dira sorta bietan. Irakurleak bigarren sorta, zortzi ahapaldikoa, dauka orriotan.

⁷⁸ Olhagaray-Duhauren sortan: *Ainitzen justizia ez dut ezagutzen*.

Gu penez hingatzen
Elgarren xahutzen
Bat bertzia hiltzen
Odola ixurtzen
Bertze hainitz urrundik irriz asetzen⁷⁹.

II
Hemeretzi ehunta hamalaugarrena
Agorrako hilaren lehen eguna
Europako gerla bat deklaratu zena
Frantzia azkar ginen bazela zuzena
Legiak emana
Denentzat berdina
Zerbitzuko on zena
Biltzeko ordena
Bainan espikatzen da diru duena.

III
Partitu ginen beraz denak⁸⁰ herritik
Gure familietan penak utzirik
Haur tiki zonbaitekin andriak bakarrik
Gizonak penatuak hor ez da dudarik
Orduaz geroztik
Dabilana xutik
Zerbeit ikusten dik
Penaren partetik
Hilak bere konduak eginak ditik.

IV
Zonbait gizon alferren kaprizia gatik
Jende miserabliak hor pekatzen ditik
Ainitzek ez diagu ardit baten lurrik
Bertzenaren ontutzen gabiltzak bakarrik

⁷⁹ Olhagaray-Duhauren sortan: *Aberatsak urrundik irriz asetzen*.

⁸⁰ Olhagaray-Duhauren sortan: *guziak*. Metrikari bagagozkio, egokiagoa.

Aberatsetarik
 Ainitzak segurik
 Urrun dituk sutik
 Diruaren gatik⁸¹
 Gu hemen hiltzen hoién manuen gatik.

V
 Izpiritu duenak errex du pentsatzen
 Gure diferentzia zombatekoa den
 Haundiak ari dira tikiak manatzen
 Pobrearen indarrez galonez altxatzen
 Ohorez haunditzen
 Mirailez beztitzen
 Diruaren biltzen
 Intresen doblatzen
 Gu horien manutik elgarren hiltzen.

VI
 Gerla hunetan parte izatu duenak
 Segur ezagutzen dik zer dituen penak
 Gogoan baitituzte aita amen grinak
 Bertze zombatek aldiz andre ta haurrenak
 Lagun baduenak
 Berak ere lanak
 Gau eta egunak
 Iriskuan denak
 Zer konda behar likek hiltzen ez denak.

VII
 Zonbat amaren seme dolorez haziak
 Hemen uzten dituzte gaixoez biziak
 Inorantzia batez hunat etorriak
 Hekien plazak dira nigarringarriak

⁸¹ Olhagaray-Duhauren sortan: *Beldurraren gatik*.

Orobat erdiak
Beltzez estaliak
Odolez betiak
Inozent trixtiak
Zonbait alferren gatik hoiek guziak.

VIII

Etsenplu har dezagun zentzuan garenak
Ikusirik munduan diren xangrinak
Umilia gaitezen Jainkoari denak
Ofreituz gu baitan diren bihotz minak
Hemen gaizki inak
Bai justu direnak
Plazer eta penak
Pasatzen tugunak
Jainkoak jujaturen tik horiek denak.

5. Pariseko Sorbona-n sarri aipatutako bertsolaria

Euskaltzaindiak 1994ko abenduaren 29 eta 30ean, “III. Herri-Literatura Jardunaldiak” antolatu zituen Oiartzunen (Gipuzkoa). Jardunaldiotan, Yves Beaupérin frantses irakasleak bi hitzaldi eskaini zizkien bertara bildutakoei, eta eurotan Pariseko Sorbona unibertsitatean urte luzetan irakasle izan zen Marcel Jousse-⁸² ikerketak eta lanak izan zituen mintzagai nagusi. Edoze-

⁸² Hona hemen, zer dioskun Gorka Aulestiak Joussez: “Mucho debe la literatura oral a este capitán francés de artillería en la I Guerra Mundial (1914-1918), que ordenado sacerdote en 1910 entró en la Compañía de Jesús en 1913 y fue profesor durante un cuarto de siglo (1931-1957) de la Sorbona y de varias universidades francesas. En su libro mencionado *Style Oral*, fruto de 20 años de intensa investigación, M. Jousse aborda los problemas del origen de la lengua analizando la espontaneidad del gesto humano” (*RIEV*, XXXIX, 1994, 33. or.). M. Joussezen liburuaren izenburu osoa honakoa da: *Le style oral rythmique et mnémotechnique chez le verbo-moteurs* (Beauchesne, Paris, 1925).

lan ere, Beaupérinek M. Lekuonaz⁸³, bertsolaritzaz, eta... Matxin Irabolaz ere jardun zuen.

Beaupérinek dioskunez, euskal jatorria zuen Morlaas psikiararen bitartez, Joussek 1931. urtean egotaldi bat egin zuen Ipar Euskal Herrian, euskal bertsolarien mundua ezagutzeko asmoz⁸⁴. Matxinek honela iruzkintzen du une hori:

Aphez eskolatu bat jin zaiku Parisetik,
Eskualdun pertsulariak aditzea gatik.
Pena handia erematen daut bihotzeko zolatik
Horrekin mintzatzeko ez baitut lenguaiarik...⁸⁵

Pena du Matxinek frantses gehiago ez jakina. Muga du hori, eta adierazi egiten du. Hala ere, Joussek estimu handitan izan zuen beti Senpereko semea, eta sarri aipatuko du Sorbonako bere eskoletan, batez ere, inspirazioaz eta bat-batekotasunaz hitz egitean: “En particulier, il nomme très souvent un certain Martin Irabola dit Matxin, cultivateur à Saint-Pée-sur-Nivelle des Basses-Pyrénées”⁸⁶.

⁸³ Juan Mari Lekuonak dioenez, osaba Manuelek ondo ere ondo ezagutu zuen Jousseren *Le style oral...* liburua: “Gasteizko Seminarioko bibliotekan dago ale jakingarri hau, M. Lekuonak azpimarratuta”. Izan ere, *Literatura oral euskérica (Literatura oral vasca 2. eta 3. edizioetan)* liburuan, M. Lekuona behin baino gehiagotan oinarrituko da M. Jousseren teorian: “Osagai hauetako bakoitzaren [ahozkotasunaren ezaugarri nagusiak] agerpen teorikoa egingo digu Jousseren liburua aipatuz, bereziki aipamen biblikoak eta beste kulturetakoak egiteko denean, zitak espresuki emanez”. Tresna benetan lagungarria izan zen, beraz, Jousseren lan hau M. Lekuonarentzat: “Ikaslan konparatiboak egiteko eta hemengoa zabalagoko beste ikuspegi, irizpide eta lanetara jartzeko, laguntza paregabea izan zuen Manuel Lekuonak gorago aipatu dugun Marcel Jousseren idazki nagusia, *Le style oral* deiturikoa, egilearen lehenengo lana eta idazlan handi bakarra” (Lekuona, Juan Mari: “Manuel Lekuonaren metodologia ahozko literaturaren ikerketan”, *Euskera*, 40, 1995-1, 109-122).

⁸⁴ Marcel Jousse, nagusiki, lau bertsolarirekin jarri zen harremanetan Euskal Herrian: Matxin Irabola, Etxahun, Larralde eta Liguéix.

⁸⁵ Beaupérin, Yves: “Au confluent du style oral et du style écrit, un découvreur, Marcel Jousse: sa vie, son oeuvre, son actualité”, *Euskera*, 40, 1995-1, 87-108.

⁸⁶ *Ibidem*, 87. or.

Ikus ditzagun Joussek 1932-1933 urteetan, Sorbonako kurtsuetan, Matxinez eginiko aipamenetariko batzuk⁸⁷:

“Il y avait à côté de moi des membres de l’Académie basque qui prenaient au vol ces improvisations et ces hommes, possédant à fond, dès l’enfance, le langage basque, disaient: *Cet homme est extraordinaire, il a une science de la langue basque et qui, plus est, une exacte rythmique qui le fait retomber sur les rimes finales avec un nombre parfait de syllabes*” (Marcel Jousse, Sorbonne, 28 avril 1932, 17.º cours, pp. 10-11).

“Et voilà cet homme devant lequel un professeur de l’Université de Bordeaux me disait: *Ce qu’il est en train d’improviser, c’est beau comme de l’Homère!*” (Marcel Jousse, Sorbonne, 14 décembre 1933, 2.º cours, p. 36).

“J’ai vu à trois reprises Matxin Irabola jouter avec ses autres compétiteurs [...]. Les deux jeunes me disaient: *Nous sommes battus à tous les concours par lui parce qu’il est illettré. Il possède sa langue basque comme nul autre. Nous autres, nous avons appris le français, nous avons été en classe. Nous ne sommes pas aussi forts que lui. Nous sommes des paysans, mais tout de même nous sommes gênés par notre instruction livresque. Tous nos mots français viennent tomber à la fin de la phrase. Cela nous donne une rime mais c’est un mot français, tandis que Matxin Irabola, illettré, nous donne la pureté même de la langue basque avec toute sa rythmique très pure. Ses versets obéissent à tout qu’il y a de plus profond dans notre langue*” (Marcel Jousse, Sorbonne, 14 décembre 1933, 2.º cours, p. 36).

Hurrengo lerroetan ere, Yves Beaupérinen idatzietan oinarrituko gara, zehazkiago haren bigarren hitzaldian⁸⁸, baina kasuon Matxin Irabolaren beraren esan batzuk ekarriko ditugu lerrootara. Esanok bat-batekotasunaren eta inspirazioaren ingurukoak dira, eta aurrekoak bezala, Joussek Sorbonako kurtsue-

⁸⁷ Ibidem, 96-97.

⁸⁸ “Les traditions de style oral: naissance, mémorisation et transmission d’après les travaux anthropologiques de Marcel Jousse”, *Euskera*, 40, 1995-1, 123-146.

tan aipatutakoak (1932-34). 1933ko pasartean, M. Joussek dios-tan asmoa zeukala Matxini buruz liburu bat egiteko. Ez dakigu asmoa errealitate bihurtu zen. Beaupérinek, behinik behin, ez zuen balizko liburu hori aipatu bere hitzaldietan. Asmo huts-ean geldituko zen?

Beste detaile garrantzitsu bat da Joussek nola tratatzen duen Matxin bere klaseetan; izan ere, sarri aipaturiko erreferente bat bezala aurkezten die ikasleei. Gehiago ere esan dezakegu, Joussek mirespenez eta karinoz hitz egiten duela Matxinez, begirune handiz. Hona hemen, senperraren erantzun jakingarriak:

“Je vous ai parlé aussi de ce Récitateur basque ou plus exactement de cet Improvisateur⁸⁹ illetré, Martin Irabola, berger. Comme je lui demandais: Quand vous allez improviser, qu’est-ce que vous ressentez? *Ah! je ne peux pas savoir si je vais bien improviser! Il faut que ça me dise là. Il y a quelque chose qui cause en moi, sans moi. Quand ça dit là, je dis. Quand ça ne dit pas, je ne dis pas*” (Marcel Jousse, Sorbonne, 28 avril 1932, 17.^o cours, pp. 10-11).

“Et celui dont je vous parle souvent, Matxin Irabola, sur lequel je voudrais pouvoir écrire un livre, un jour me disait, avec les deux ou trois mots de français qu’il savait: *Que voulez-vous, je ne sais pas comment j’improvise* et mettant sa main sur la poitrine: *Quand ça cause là, je parle*” (Marcel Jousse, Sorbonne, 21 décembre 1933, 3.^o cours, pp. 49-50).

“J’ai eu la grande joie, il y a trois ans, d’assister à l’improvisation d’un improvisateur basque, celui dont je vous ai parlé souvent, Matxin Irabola [...]. Ce dimanche-là, il avait pris vacance pour venir avec trois autres improvisateurs. Et il était assis auprès de moi et comme je mettais ma main sur son bras, j’ai senti son bras trembler. Alors, dans les quelques mots français qu’il savait, il m’a dit: *J’ai peur, je ne sais pas ce que ça va dire là quand je vais être obligé de me lever*. Voilà l’inspiration, mes chers petits poètes, qui demandez ce que c’est que l’inspiration

⁸⁹ Maiuskulak Jousserenak dira.

créatrice, la voilà! Ce n'est pas votre inspiration" (Marcel Jousse, Sorbonne, 15 février 1934, 8.º cours, p. 153).

Matxini buruzko aipamen horiek –gehienak– txertatuta agertzen dira Beaupérinek, 1996. urtean, Parisen, emandako beste hitzaldi baten: “Le style, c’est l’homme... contribution du style oral à la formation de l’homme”⁹⁰. Ikusten dugunez, Txirritaren kasuan bezala, Matxinen aipamenak ere, *beste laurogei urtian izan dira*; baina, kasuon, Pariseko *partian*.

Yves Beaupérinentzat –Jousseri jarraitzen dio– kultura idatzia eta hedabide berrien eragin neurritz kanpokoak baldintzatu eta ahuldu egin dute gizakiak ahozko jardunetarako duen ahalmen neurrigabe eta naturala. Ahulezia hori tratatzeko antidoto moduko bat proposatzen dute: baserritarren errealismoa, eta *gestu (geste)* erritmiko-mimiko-logikoa. Beaupérinek dioenez, borroka zail eta desorekatua da oralismo naturalak gizarte modernoan daukana. Edozelan ere, Euskal Herrian oasi txiki eta itxaropentsu bat ikusi uste du frantses irakasleak. Zioskunez, bizkunde halako bat barruntatzen zuen Euskal Herrian, bai hizkuntzaren berreskurapenean, bai ahozko tradizioen arloan ere. Ur zaharrek ur berriekin egin ei dute topo gurean, iturri emaro eta itxaropentsu bat sorturik.

Iparraldeko bertsolaritzari dagokionez, zorionez, iturriaren emaria gero eta sendoagoa da⁹¹. Katea ez da eten: Miren Arretxe, Amets Arzalluz, Maddalen Arzalluz, Sustrai Colina, Patxi Iriart, Mizel Mateo, Ekhi Erremundegi... dira horren lekuko.

⁹⁰ “Le style, c’est l’homme... contribution du style oral à la formation de l’homme”, Conférence donnée le 10 novembre 1996, en conclusion du Colloque “Les traditions orales: une source vive pour l’homme, aujourd’hui”, organisé par l’association Marcel Jousse et l’association Amarilys à Paris.

⁹¹ Lerrook idazten ari naizen honetan (2010-08-22), albiste haxe dakar gaurko *Berriak*: “Irailaren 18an hasiko da Ipar Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa. [...] Lapurdi, Nafarroa Behere eta Zuberoako bertsolarien lehia irailaren 18an hasiko da, eta finala Donibane Lohizuneko Jai-Alai pilotalekuan izango da, azaroaren 13an. Amets Arzalluz iazko [orain bi urteko] txapelkunarekin batera, 19 bertsolari ariuko dira kantuan, 2008an baino lau gehiago” (*Berria*, 2010-08-22, 29. or.).

Gugandik joan zela hirurogeita hamabost urte betetzen diren honetan, bitsetan legoke Matxin gazteon bertsoak entzuten; harro sentituko litzateke!

6. Bibliografia

- Aitzol (Jose Aristimuño): *Idazlan guztiak VI*, Erein, Donostia, 1987.
- Askoren artean: *Bertsularien artea*, Euskal Kultur Erakundea, Baiona, 1998, 36-40.
- Artetxe, Jose de: “Una fiesta inolvidable. Alto exponente de nuestro ingenio y cultura”, *Euzkadi*, 1935-01-25, 1. or.
- Barbier, Jean: *Piarres*, S. Sordes, Baiona, 1926.
- Beaupérin, Yves: “Au confluent du style oral et du style écrit, un découvreur, Marcel Jousse: sa vie, son oeuvre, son actualité”, *Euskeria*, 40, 1995-1, 87-108.
- : “Les traditions de style oral: naissance, mémorisation et transmission d’après les travaux anthropologiques de Marcel Jousse”, *Euskeria*, 40, 1995-1, 123-146.
- : “Le style, c’est l’homme... contribution du style oral à la formation de l’homme”, Conférence donnée le 10 novembre 1996, en conclusion du Colloque “Les traditions orales: une source vive pour l’homme, aujourd’hui”, organisé par l’association Marcel Jousse et l’association Amarilys à Paris.
- Bidegain, Eneko: *Gerla Handia, muga sakona*, Utriusque Vasconiae, Donostia, 2009.
- Biona, G. de: “Crónica General del Congreso de Guernica”, *Euskalerraren Alde*, 1922, Tomo XII, 328-355.
- Dolosor, Franck: “Agur hunkigarria egin zaio Beñat Amestoy sei urtez erretor izan denari”, *Ttapi-ttapa*, 501, 2009, 36. or.
- : *Senperetik Senperera*, Elkar, Baiona, 2009.
- Dorronsorro, Joanito: *Bertsotan II 1936-1980*, Gipuzkoako Ikastolen Elkarte, Zarautz, 1988.
- Duhau, Henri: “Matxin senpertar bertsulariak”, *Maiatz*, 31, 1988-urria, 16-25.

- Elustondo, Miel Anjel: “Mari Treku: *Nire denboran iruditzen zitzaidan bertsolariak Euskal Herriko patroiak zirela*”, *Argia*, 1.949, 2004-06-20.
- Ercoreka, Ramon: “Bertsolari Txapelketa Nagusiaren Historia”, *Argia*, 1.096-97, 1986-03-30, 27-34.
- Eskualzalea*: “La grande journée basque de Tardets”, *Gure Herria*, 1.935, 458-461.
- Ithurriague, Jean: *Un peuple qui chante*, Edimpress, Paris, 1947.
- Jauregi, Koldobika: “Bertsolari-Eguna dala-ta”, *Argia*, 1935-01-20, 2. or.
- Lafitte, Piarres & Xarritton, Piarres: “Le caractère des Basques”, in Haritschelhar, Jean (ed.): *Être basque*, Privat, Toulouse, 1983, 107-124.
- Lafitte, Piarres: “Bizpahiru orroitzapen lehengo bertsolariez”, *Zeruko Argia*, 600, 1974-09-01, 9. or.
- Larre, Emile: “Ipar Euskal Herriko Bertsulariak”, *Jakin*, 14-15, 1980, 30-37.
- Larreko* (Jean Pierre Soudre): “Matxin zenaz”, *Herria*, 1.858, 1986-06-19, 5. or.
- Lekuona, Juan Mari: “Manuel Lekuonaren metodologia ahozko literaturaren ikerketan”, *Euskera*, 40, 1995-1, 109-122.
- Lekuona, Manuel: *Literatura oral vasca*, Auñamendi, Donostia, 1965.
- : “Bertsolariaren Eguna”, *Argia*, 1935-01-20, 1. or.
- Onaindia, Santi: *Gure bertsolariak*, Gráficas Bilbao, Bilbo, 1964.
- Oxobi* (Jules Moulrier): “Mattin Bertsularia?”, *Eskualduna*, 1.829, 1935-04-26, 1. or.
- Panpilli* (Jean Pierre Zubiria): “Matxini ohore”, *Herria*, 1.857, 1986-06-12, 5. or.
- Sarriugarte, Iñaki: “Bertsolari Txapelketa Nagusiak 75 urte: P. Abarra-tegi eta E. Uriarte Poxpolin antzokian”, *Karmel*, 270, 2010-2, 3-41.
- Treku, Mattin: *Etxe xokotik kantari*, Auspoa, 151, Zarautz, 1981.
- X. X.: “Bertsolari-Gudaketa nola egingo dan”, *Argia*, 1935-01-20, 1. or.
- : “Bertsolarien Eguna dala-ta”, *Argia*, 1935-01-27, 1-4.

- : “Matchin bertsularia eri”, *Eskualduna*, 1.827, 1935-04-12, 2. or.
- : “Matchin bertsularia”, *Eskualduna*, 1.828, 1935-04-19, 2. or.
- : “Senperen omenaldia Matxin Irabola zenari”, *Herria*, 1.853, 1986-05-15, 3. or.
- Zavala, Antonio: “Bertsolariak eta Europako lenengo gerratea (1914)”, *Euskera*, IV, 1959, 183-206.
- : *Alkain aita-semeak*, Auspoa, 91, Donostia, 1970.
- Zubimendi, Joseba: “Lenengo bertsolari eguna”, *Yakintza (1933-1936)*, III. tomoa, LGEV, Bilbo, 1977, 140-154.
- : *Bertsolari-Guduak 1935-1936*, Euskaltzaleak, Donostia, 1936 (2. edizio faksimilea: GFA, Donostia, 1985).
- : *Bertso minez* (Koldo Izagirrerren edizioa), Alberdania, Irun, 2002.
- www.bertsozale.com
- www.bertsulari.com

Iñaki Sarriugarte Irigoien